

AURKEZPENA

Aldizkariaren 29. zenbakia gizarte inklusibo baten erronkari dedikatu bage-
nion, oraingo hau, enpleguaren kalitate eta kantitatearen hondatze nabarmena-
ren ondorioz, lan harremanen bat izan arren pobrezian bizi diren pertsonen in-
guruan finkatu da. Horrek guztiak laguntza eskatzaileen kopurua bidertu du eta
gure erakunde eta alderdi politikoetan eztabaida sustatu, Europar Batasunean
ere, gutxieneko errenta europarraren beharra planteatu baita. Oinarrizko errenta
unibertsalaren bideragarritasun ekonomikoa, bai eta horrek lana-enplegua bi-
nomioan eta azken horren kalitatean eragin dituen ondorioak ere, beharrezko
eztabaidak dira. Giza eskubideen gauzatzean aurrera egitea dakar, eta horrela,
osasunera eta hezkuntzara sarbidearekin batera, gizaki guztien bizitza duinerako
gutxieneko errenta nahikoa bermatzea.

Lan Harremanak aldizkariaren monografikoa osatzen duten artikuluek al-
derdi desberdinak aztertzen dituzte.

Noemí Peña-Miguel eta J. Iñaki de la Peñak idatzitako artikulua Oinarrizko
Errenta gisa ezagutzen den kontzeptua berrikusten du, bai eta horren ezaugarriak
ere, aitzindarien ikuspuntutik eta *Welfare* eta *Workfare* izena daramaten gizarte
babeserako ereduaren barruan. Oinarrizko Herritar guztien bizi-beharrak beteko
dituen Gizarte Prestazioa, kontuan izanik, ez bakarrik bakoitzaren egoera pertso-
nala, baizik eta Estatuko egoera demografikoa eta ekonomikoa ere.

Bestetik, Joseba Zalakainek gutxieneko errentetan Frantzian eta Erresuma
Batuan egindako erreformak deskribatu eta Euskadin Diru-sarrerak Bermatzeko
Errentaren eremuan garatutako enplegurako pizgarri sistemaren eragina azter-
tzen ditu.

Marta Ibáñezek agerian jartzen du pobrezia (erlatiboa eta absolutua)
egungo eragina eta nola zenbait ezaugarri (pertsonalak, elkar-bizitzakoak eta
lan arlokoak) errealitate horretara gehiago ala gutxiago lotzen diren. Era berean,
krisi ekonomikoak (2009-2013) pobrezia lotutako bi faktoreen sorrerarekin
izan duten eragina behatzen du, hots, adingabekoen presentzia etxeetan eta etxe
horien lan-eragin urria. Azkenik, egungo krisi ekonomikoak langabetuak eta
gazteak bereziki eragin dituela egiaztatzen du.

Carmen Sabaterrek Errioxako Autonomia-erkidegoan prekarizazio eta desfiliazioak eragindako 28-35 urteen arteko gazteei egindako elkarrizketa sakona erabiltzen du egonkortasun ezaren prozesu hori ikuspuntu hirukoitz batetik aztertzeko: objektiboa, behin-behinekotasun eta aldakortasun iraunkorarekin lotutakoa; subjektiboa, arriskuaren gizartean bizi, nortasun eza eta enpleguarekin atsegirik ez izatearekin lotutakoa; eta lan-eskubideen galeraren ikuspuntua, hori enplegu zein enplegu ezaren egoeretan ikusten baita eta sarri bizirik irauteko gutxieneko maila izan ahal izateko laguntza ekonomikoak eskatzeko aukera ez izatea dakar.

Alejandro Docampok, A Coruñaiko Unibertsitateko Lan Harremanetako eta Giza Baliabideen Fakultateko beste 7 ikaslerekin batera, Espainian pobrezia ataria neurtzeko adierazle ofizialak ikasi dituzte, bai eta adierazle autonomikoak ere, Europar Batasuneko «Europa 2020» dokumentuan finkatutakoekin kontrastatu ahal izateko. Europar Gizarte Gutunaren 4 artikulua betetzearen azken kontrolaren bitartez, Espainian pobrezia atariaren ezargarritasuna aztertu dute.

Eider Larrazabalek bi alderdi aztertu ditu bere artikuluan: batetik, kontratazio publikoan klausula sozialak ezartzeko dauden aukerak eta, bestetik, kontratu publikoak burutzean gutxieneko soldata eskatzeko aukera.

Azkenik, zenbaki honetako atal irekia hiru artikuluk osatzen dute. Lehenengoan, Aleida Hernándezek idatzitakoan Mexikon haurtzaindegirako eskubidea aztertzen da. Beste biak Miquel Ángel Falguerak («Los medios de prueba de la causalidad económica, técnica, organizativa y productiva») eta Tatiana Morenok («La investigación económica y sus consecuencias jurídicas. Presentación del método ABCDEF») 2015eko maiatzaren 28an eta 29an UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan egindako *Lan eta gizarte aholkularitzan diharduten profesionalen lehen topaketa: Enpresa krisiak eta langileen funtsezko eskubiak* ekitaldian aurkeztutako ponentziak dira.